

AMAÑO

AGERTUKO DIRA:

GANIX: 11 urtheko muthiko erne bat
KAIET ORABIL: 60 urtheko gizon bat etxezain
LARREBELTZ: amerikanoa, Ganixen aita
PATTIN: Kaieten auzo eta adixkidea

1er AGER-ALDIA

(Supazter bat - Su aintzinean, altze bat. Mahain baten gainean, zenbeit untzi, aza, pastenagre, lur sagar. Ganibet bat)

GANIX: *(Mahainaren aitzinean, baratzekariak garbi eta eltzean, ser kantuz ari delarik:)*

Agur, Ixtebe,
Nolda zirade,
Bizi zireia oraino!...

Demonitxua: Zer eltzekaria dukegun zerri aitaotxit'eta nik... Xingar gizen poxibat huntan, egosonik, burra bezala ahoan, urtuko zaukuna, zer behar da gehiago? Aitaotxik diona, ase sendo batek bi gose balioko ditik... Nun othe dut aitaatxi?... Hari ura hortzetarat ekhararazia eltzekari onxko bat hitzemanik!... Beharrik bainou berekin Bazterxokoan; argi lezakek, to, giza gaizoak, ni gabe! Aitaatxi enekin untsa, ni harekin jo aitzina!... hil artio biziko gituk!

Bizi nuk eta bizi gogo ere
Hartzeak kobratu arte:

2ème AGER-ALDIA

GANIX eta KAIET

KAIET: *(sukaldean sartzen eskuak perekatuz)* Alegera hiz, naski, Ganix hola xaramelatzeko? Ongi molda zak eguerdiko eltzekaria *(Homi beha dagolarik)* Alo! atsegin diat ikhustea dizipulu ona izan dutala hi baitan.

GANIX: Bai, aitaatxin, ba; erakusle ona izan hiz, eta orain nik hi laguntzen ahal. Hi sukaldean sartzean gogoeta nindagoan zertan hintezken ni ez baninduk hemengo lanen itzulikatzeke. Orai ere orhoit arazten haut xingar hortarik /erakusten du xingarra) behar dukala eni eman eltzean, ezartzeko. Eta zer bazkaria ez dukegu?... Guk sarri.

KAIET: Goseak hil beldur hiza? Hi bezalako putiko baten hazteko, harra *(il coupe)* bi pozi baten orde.

Gero, Ganix, jauzi batez juanen hitzaat Pattin bertako hiltzalearen gana, eta errok jin dadin bere bizar-nabelarekin... badakik zetarat?... *(Kokotsa hurekiz)* balinbadut segurik beharrik:... juanden merkatuan, egina, hamabost egun, hautako bizarra enekin diat.

GANIX: Nik eginen, hik erranak oro: Baina, aithortu behar duk haatik, aitaatxi, baliatzen nitzaukala... nori egin bertzela hoinbertze manu? «Ganix eguerdiko eltzekaria; alo, berma: — Ganix: erne; ernea, behiak pentzerat jaki! —Ganix ez ahantz arroltzeak biltzeko, eta ongi kondaturik ereman, arekardarsari eta sal kario; — Ganix: bere korda luzearekin hesiari esteka...». Amaño: *(aditzen da ahuritza...)* Zer nahi den, Ganix: bethi Ganix; Beraz biba Ganix; Eup;... haika puttil.

(badoa... jauzteka)

KAIET: Bakotxari berea, hala duk, Ganix; nun da hire parerik? Hi gabe, deusgute nindukek Bazterxokoan.

GANIX: *(athean, urrun behartzen duela)* Aitaatxi, hara Pattin, etxe sahetsean; oihu egin, banezo; *(Jalirik poxibat)* Pattin, hou... hou, Pattin! Aitaatxik nahi likek bizarra moztu! Haugi hire, tresneria guziarekin!... Ez duk segur urguluz ari amaño bezein, bizardun baita...

KAIET: *(bera)* Agiazko debrizuna! *(burua erabiliz)* Hauxe duk ihizia zenbait urthere, buruko, herri guzia erabiliko dik, jaun auzapeza barne!... Zer putikoa!! *(Ganixi)* Habil, to orai peutzerat, eta ez utz Pattinen, artean, behirik sartzerak!

GANIX: Aitaatxi, ago deskantsuan!... Zonbait arto-buru gora-behera zer ditake!... Hobe, hobe, gure behientzat!

(Il sort, en chantant)

KAIET: Hoi! hoi.... zer biligarroa! baditakea bertze bat... holakorik!

3ème AGER-ALDIA

KAIET eta PATTIN

PATTIN: Jainkoak dautzula egun on, Kaier! zuk bizar handi hori poxulu? *(gauzak hedatzen ditu mahainean; salboia egiten...)*

KAIET: *(Oihal bat lephoa, ezartzen du... Kadera bat jartzen, diolarik:)* Egin beharra dut; juanden merkatuan moztua zinautan. Nola ez da luzatu hamabortz egun hautan. Ez du ene bizarrak euri beharrik, azken idortean, gure baratzekariak bezala.

PATTIN: *(salboia emaitan)* Egun haatik zuen eltzeak ez du aza eta gaineratikoen eskasik! Ez duzue naski deus nahi gosearekin?

KAIET: Hori, gure putikoaren lana; Ibargain guzian ez da-eta emazterik ere eltzekari egiten Ganixi nausituko denik!

PATTIN: Bainan nola duzu haur hori zurekin? Badakit ez dela zure abidantzakoa; gainehatikorik, fritzik ez.

KAIET: Luze da, luze, eta... *(burua ibiliz)* trixtea, horren ixtorio ori, bethi danik zu adixkide baitzaitut, huna sekretu guzia.

PATTIN: *(bizer-nabela sudurpean dabilala, sudurra bierrhiz goitituz)* Segur eta fida izan zaite, Kaiet, sekretua gure artean egonen da.

KAIET: Beraz, huna. Ihautori huntan egiten ditu hameka urthe, Baionarat juan nintzala, ez segur paseatzea gatik, bainan osoki beharrez. Ene itzuli guziak eginik, sartu orduko zuk ere ezagutzen duzun Eskualdunen, oatatuan. Korra nun nausia heldu zautan esku emaiterat. «Hi, hemen, Kaiet? —Bai, ezin ukhatua! Bahaki zoin atsegin dutan hi hunat jinik! Behar dituik bi solas egin elgarrekin». Barne berex batetarat eremanik erran zautan: «Banikek hiretzat irabaz-bide bat ona. Huna, zer.

KAIET: *(suite)* Amerikano eskualdun bat, bere lagunarekin jina, biziki hitski gelditu duk. Emaztea hil ziakok, uzten, zuela hiru hilabete haur batekin. Ameriketarat itzuli gogo baitu zonbait-urtherentzat oraino, nahi likek haurra ezarri amañoan Kanpañoako jende gisako eta garbi batzuekin. Eman letzazket ehun libera hilabete haur. Zer diok? Hiaurek ez baduk nahi...» Akhabatzerat ere utzi gabe, abian erraiten diot: «Zerdiotan? Nihaurek ez dudanez hartuko?... Debruenpola!... gogotik, hartuko nihaurek!... segur bainiz, emazteak ez derautala beltzuririk eginen, etxerako nizanear!»

PATTIN: Zuk errazu! Noiz dira holako suerteak? Alabainan, hilabete guziez ehun libera: fortuna bat da-eta! Eta zeren egiteko? Haurrari esne hurrupa zonbait eman, ikhuz, troxa, lokar-ara eta gero, amentsetarik bezala, diruño hori bethi heldu!... Badakizu, etzira batere pelloki jokatu...

KAIET: (*hits-hitsa*) Bai, bainan zerbait baitzen ere enetzat zagoen bihotz-min izigarria! Ni, ene haurra besoetan, etxean sartzean berean, etzena ene emazte gaixoa, abere pazkatzen arizena mañatera-zilo batetarik erori eta hautxet gelditu hil-hotz? Zerbait jasanik nago ene bizian!... Gaixo Kattalin!. Halako laguna (*nigarrez*) ez baitzuen, parerik barneño hauien garbiki, zilharra bezein garbiki atxikitzeke eta, merkatuan gasna eta arroltze saltzeko... Eta ni hau, molde ezinago hits hartan: emaztea hila, eta haur ttipi hura ene gain!... Zer egin? Nola joka?

PATTIN: Han, zinintuen, ba, zinak eta minak! Haurñoa etxean atxikitzeke amañorik ez, eta...

KAIET: (*Pattin, akabatzero utzi gabe*) Haurraren atxikitzeke? ez nuen ez gero dudarik haren atxikitzeaz bezenbatean!... eta diruketa hura eskapatzerat utz gisa hartan?... ez nuen, ba,uste!

PATTIN: Nolaz, ba, atxik? eta, amañoa?

KAIET: (*nigarrak utzirik*) Amañoa? bainan, hau (*i1 touche son front*) duendi oro antolatzen ditu! Ez nuena othe, aberetegian, ahuntza gazte-gazte bat, loriosa, bi pittika sortu-berriren ama?... Horra nun zela ene haurraren amañoa, garbi eta gisakoa Amerikanoak gutziaz bezalakoa! Erran bezala egin hasi nintzen berehala, abian, haurrari ahuretz-esne emaiten, gero ongixko garbitzen eta aphaintzen nuela, zoin nahi emaztek bezein xerrenki. Eta ez nuen sekula erranen ahuntz-esnea holako indarrekoa zela! Bertzalde, ene loria ikhusiz putikottoa egunetik-egunera biribilduz, handituz eta edertuz zoala! Auzoak oro loriatunk Ganixi beha, ziotelarik: Hauxe da haurra! baditakeela ere holakorik!..

PATTIN: (*maltzurki*) Bai, bai, ez da erran behar...; muthiko gotorra da, bainan, zer ihizia ez da? Nun da ausartagorik atrebituagorik ingurune guzian? Ageri da horrek bethi, hogoita-hameka eta exku zituela Kaietekin... eta bestalde ahuntzaren esne hazia zela, pittika jite baitu segurik!

KAIET: Ja! ja! ja! batere etzira! Ahuntz-esnea! ahuntz-esnearen indarra! Ez ditake erran, gizona, ahuntza zer amañoa den! Ori, aski duzu Ganixi behatzea, bere aztal gogor biribilekin, bere besondo altzairuzkoekin eta bere begitarte arrai osagarritzkoarekin! Eta, zer kaskoa ez du! Berek derabilzka Bazterxokoko goiti beheiti guziak! Denetaz orhoit! Deneri buru egiten! Eta, horren bihotza!... itsutuki maite du bere amaño; leherrik bethi hura arta, gero bere burua, haatik, gopor-esnea aireat bederama! Holako putikoa?... ba, funtzean, ahuntz-esnearen indarra!

PATTIN: Eta horren aitak ez dautzu berririk galdegiten? Zer xehetasun igortzen diozu? Nahiz, zuhaurek ez dakizun, iz...

KAIET: (*presan*) Ez da erraiteko baizik: aita gizon prestua bide da. Urthean bizpahiru aldi ditu berriak galdatzen: nik igortzen ba, igor-arazten diot haurra ezinago ongi doala. Badu bi urthe aiphatu dautala horren eskola araztea, eta hortako emendatu daut hilabete-saria. Ikhusten duzu zer gizona den?

PATTIN: Bai, ikhusten hori; bainan... bertze zerbait ere...

KAIET: Zer, othe?...

PATTIN: Garbiki erraiteko, ez duzula biziki eskola arazten! Sakre parrasta bat badakizka; gaineratikorik, arras guti. Aitak hilabete-saria emenda-bixtan da, semea ongi altxatoa ikhusi nahiz-eta, zuk, axolarik ez, eskolaz; Zer erraiten ahal diozu, bada, zure letretan?

KAIET: Baionan badut ezagun bat, judua, harek egiten, dauzkit letra batzu... nolakoak! nik nahi ditudanak oro ezarriz. Zerbait gostatzen ere zait, ba, haatik!

PATTIN: Juduak, judu, joko; ez ahal da biziki kilika, hala ez direnak ezarririk ere, irabazten duen ber!

KAIET: Zer nahi duzu! Harek enganatzen daut, oraino segurik, amerikanoa. Azken aldian izkiriatu du semea ari zekela arras polliki leitzen, izkiriutzen, xifretan eta latinari lotua dela.

PATTIN: Hum!... gizona, ez othe diozu soberaxko igorri hor? Eta, gerta ditakeena, jaun hura heldu bazautzu hunara egun batez, zertan zira?

KAIET: Bah! ori, Ameriketa urrun da hemendik; goazin behin hola, gero ere ez ahal da izanen belea baino beltzagorik.
(*Kaiet zutiturik ikhuesten da; Pattinek, bizar-nab... xukatzen du*)

3^ème AGER-ALDIA

KAIET, PATTIN eta GANIX

(*Aditzen da Ganix kantuz kanpoan: «Iruñen egin dute...»*)

KAIET: (*kantuari beha egonik, hastearekin: Ai, ai, ai, mutila...*) Hori... gure Ganix da! Etxerat, heldu hoin goizik? Tenorea baino biziki lehenago! Behiak pentzean utzirik, ez bide da bere heldua, abiatu; nunbait zerbait bada! Ez baita ihizia mottela, zer den jakinen dugu laster.

GANIX: Aitaatxi! aitaatxi!!

KAIET: Hor hiza?... zertako egun hoin goizik? Ala...

GANIX: Badakika, aitaatzi; bizarra eginik, arras gizon pollita hizala? Baliatuko ere zauk ene iduriko, hola plantaturik, molde onean, baihitake jende arrotzek ikusteko. Ezen, ez dakiat ez denez hor...

KAIET: Zer derasak, apo xirtxila! Nahi duka laster eta garbiki mintzatu? Hizan bezalako!...

PATTIN: Arrotsak hunat heldu direla erran nahi badu, ez dute ene sudurrik ikusiko, ni laster itzaliko niz hemendik!

GANIX: Alta, ba, hala duk; behi zain nindagolarik, etzauta erregebidetik elheketa lotu jaun bat?...

KAIET eta PATTIN: Jaun bat!... horrata jina!...

GANIX: Ba, ba, jaun bat horrata jina! eta, nolakoa? pezako jauntzi eder eder hatekin...; papoan urhezko xena zabal bat...

KAIET: (*effrayé*) Urhezko kadena?...

PATTIN: Ona dugu hori hainarrekoa!...

GANIX: Urhe xena distiratzen duena... dir... dir... egiten; xapel belts eder bat buruan: amerikano aberats zombait dukek...

KAIET eta PATTIN: Amerikanoa... ba othe?

KAIET: (*bere buruarekin*) Ez ahal duk!... ez!... ez!... Ai! ai! ei! ai! Ez!... ez!

GANIX: Zer duk aitaatxi? Ala sabeleko min handi zombait lotu zauk bepetan?... Nahi duka zerbait bero nik egitia?

KAIET: Eta... eta... zer dio jaun harek?... Zer galdatu dauk?

GANIX: Eia, zoin zen, hemen Bazterxokoa, eta hango Kaiet ezagutzen dudanez... Kaiet delakoa untsa denez...

KAIET: (*harritua*) Ah! Pattin!... ez da bertzerik! hura da... eneak egin du.

PATTIN: Beldurtzeko duzu, Kaiet! Xahu zira, xahu sekulako...!

GANIX: Etxea erakutsi dioiat, eta erran, Kaiet urusa dela, urusa eta alegeraxko oraino!

KAIET: (*burua galdua*) Ni!... alegera!... alegera!... gezurra, hori gezurra! Ai! ei! ai!... hauxe da athekan nizana! (*buruan lotuz*) Ho! Ho!

GANIX: Jaun hari erranik, erregebidez inguruan, jin dadin, nik labur bidez laster egin diat, hiri jakinarazteko bisita handi bat heldu zela.

PATTIN: Beharrik muthiko erne hau han baitzen!... Bainan, bainan nor othe dabila hor? Hura othe da, Kaiet? Hau da ezinbertzea!

KAIET: (*gehiago harritua*)... Ai! ei! ai!... Pattin, zuri ere iduri hura dela!... egin behar dut, nik?... Norat itzul?... Zer bilhaka!... Nun gorde?... nun koka!

GANIX: Bainan, aitaatxi, zer duk holakatzeko? Zeren beldur hiz?...

KAIET: (*erhotua*) Laster, Ganix! gorde hadi! (*erakutsiz zonboit toki*) hor! hantxet! ez...

hemen.

GANIX: (*bera harritua*) Ze... zer da, ba?... Iziarazten nuk, aitaatxi...

KAIET: Ez! ez!... habil aberetegirat! amañoren gana... estekazak sasi-ari!... Alo, ba jua hortik pentzerat... oihanerat... otharrerat... harrobirat... larrerat... hots, norapeit! Alo, ba!...

GANIX: (*aitaatxi balakatuz*) Beha aitaatxi! (*eltzea erakutsiz*) ez diuk eta osoki moldatu eltzekaria! bixingor poxiak sartzeko utziak eta sarriko bazkaria? aitaatxi!

KAIET: Bazkaria duka, bazkaria!... Ez diat, ez nik hori goguan!... (*eztixago*) Ba, Ganix, ba; emanen ditiat, bi, hiru, lau pezi bainan, habil laster pentzerat, behiak nehorat jua gabe...

GANIX: Banoak, banoak, aitaatxi; bainan eltzea arta hik!... (*badoa*)

KAIET: (*Kexatua*) Eltzea! eltzea!... Ni naiz, ni orai, Pattin, eltze eta dupin!!... Araiz! araiz! tronpatu da, ba, gure muthikoa. Jaunxkila zonbait hartu duke amerikano batentzat!

PATTIN: Ganix... enganatua? nik ez uste!... (*Kanporat beha*) Ori! Ori! horra hor-hunat heldu... jaun bat... berrogoi urthe, hein, hortakoa... gizon bat ederra, aberatsaren itxura guziak dituen! Huna! huna!...

KAIET: Ai! ei! oi! ene zangoak ikharatzen zauzkit! Enauke xutik... bixta ere nahasten...

PATTIN: (*jalitzen delarik*) Ez baitut, nik, horrekin, egitekorik, banoa. Egizu ahalik hobekiena.

KAIET: Jua zarela!... ni baxharrik utzirik hemen molde huntan! Ai! ei! ai!... xaxu niz, xaku!... (*nahi litake gorde*)

[...]